

All'Antica

Antzinako Musika Kontzertua

London
Paris
Roma

Grand
Tour

Dossier de Contratación
Información y próximos conciertos:

www.allantica.org

info@allantica.org

Tel. 650 697 627



Getxo

local entities

Subvenciona

GRAND TOUR

Diziplina anitzeko proposamen eszenikoa da eta barroko ingeleseko, frantseseko eta italiarreko antzinako musika estiloak uztartzen ditu; hala, iragana eta oraina elkartzea du helburu.

Askotariko estilo nazionalak azalpen laburrekin tartekatzen dira; horrela, batetik, testuingurua ematen zaio musikari; bestetik, ikusleari laguntzen dio Purcellen, Versailles jauregiaren eta Italiako lehen barrokoaren garaian kokatzen, non musikak funtsezko papera zuen.

KONTZERTUAREN HELBURUA

Kontzertu honen bidez, XVII. mende amaieran errotutako ohitura eman nahi dugu ezagutzera: baliabide nahiko zituzten gazte europarrek, adin nagusitasuna lortzean (21 urte inguru), Europatik bidaiatzen zuten Italia helmuga nagusitzat hartuta.

Antzinako instrumentuen erreplikak erabiliko dira, interpretazio zaindua eta historizista eskaintzeko asmoz.

Bost jotzaile eta soprano bat izango dira interpretatzaileak.



GRAND TOUR

EGITARAUUA

Lehenengo zatia, Ingalaterra

<i>Scott Old Song Lord Aboyne's Welcome</i>	F. Barsanti
<i>If love's a Sweet Passion - Fairy Queen Z 629</i>	H. Purcell
<i>Chaconne - Fairy Queen Z 629</i>	H. Purcell
<i>The Knotting Song Z 371</i>	H. Purcell

Bigarren zatia, Frantzia

<i>Prelude (Suite II)</i>	M. Marais
<i>Vos mépris chaque jour</i>	M. Lambert
<i>Menuet - Sarabande (Suite II)</i>	M. Marais
<i>Sans frayeur</i>	M. A. Charpentier

Hirugarren zatia, Italia

<i>Capriccio per sonare il violino con tre corde a modo di lira</i>	B. Marini
<i>Folle è bene che si crede</i>	T. Merula
<i>Folias echa para mi Señora Doña Tarolilla de Carallenos</i>	A. Falconieri
<i>Se l'aura spira</i>	G. Frescobaldi



INTERPRETATZAILEAK

Laiene Alcalá Sopranoa

Diego Parra Biolin barrokoa

David Sáez Moko txirula.

Silvia Cantatore Zango biola.

Teresa Merino Tiorba

Elvira Pujol Klabezina



AURREKONTUA

Kontzertua egiteak 1600 euro balio du.

BALDINTZA TEKNIKOAK

Musikariek beren instrumentuak, atrilak eta interpretaziorako beharrezkoak diren tresnak erabiltzen dituzte.

Honako hauek behar dira: lau aulki musikarientzat, entzuleentzako aulkiak eta agertoki gaineko argiztapen egokia; azken hori argi teknikariek edo bertako langileekin adostuko da.

Kontzertua egingo den aretoaren arabera, bi aukera daude kontzertu hau egiteko:

A aukera:

Irudien proiektzioarekin. Proiektore bat, dimentsio egokietako pantaila eta soinu ekipo bat behar dira.

B aukera:

Irudiak proiektatu gabe. Ez da behar ekipo elektronikorik, ezta soinu ekiporik ere.




ALL'ANTICA

Musika oro har eta antzinako musika bereziki ezagutarazteko eta horren gozamena zabaltzeko asmoz sortu zen. Bokazio hutsez, musika klasikoko ohiko giroetan jo ohi ez den musika zabaltzen saiatzen gara, gizateriaren ondare dena.

Antzinako instrumentuen erreplikekin jotzen dugu, batzuetan gaur egun erabiltzen ez den afinazioarekin, eta orkestra modernoaren soinuaren oso bestelakoa lortzen dugu..

Kontzertuaren amaieran eta helburu didaktikoarekin, aukera emango diegu entzuleei kontzertuari, instrumentuei, interpretazioari eta abarri buruz nahi dituzten beste galdera egiteko.

All'Antica 2018an sortu zen eta ordutik hainbat kontzertu eman ditu. Azken egitarauetatik honako hauek dira nabarmentzekoak: *Monteverdi, Soltanto Amore, Alfontso X. Jakitunak Artziniegako hiribildua sortu zueneko 750. urteurrenerako musika, Les Plaisirs de Versailles* eta *Grand Tour* (aipatutako azkena berriena da).



KONTAKTUA INFORMAZIOA ETA HURRENGO KONTZERTUAK

www.allantica.org

Email: info@allantica.org

Email: allantica.musika@gmail.com

Tel.: 650 697 627

Harremanetarako: David Sáez

